El padrón no puede ser algo tan difícil de conseguir, es lo mínimo que debe tener una persona que vive aquí. Debemos de tener en cuenta que este ofrece la oportunidad a las personas migrantes para que puedan, al menos, conseguir regularizar su situación, que ya de por sí es complicado, porque sólo con eso no sirve. Aun así, puedes estar diez años aquí, pero sin padrón nunca te vas a regularizar. Eso tiene que cambiar, los ayuntamientos tienen que empadronar. ■



# «Etxebizitzaren akatsa sistemikoa da. Europa osoko arazoa da etxebizitza merkatu librean kudeatzen dela»

Ipar Euskal Herrian orokorrean baina Lapurdiko kostan bereziki, etxebizitzaren arazoa larria izan da azken urteetan. Diagnostiko labur gisa, zeintzuk dira etxebizitzaren arazoa ardazten duten elementu nagusiak?

Etxebizitzaren problematika Ipar Euskal Herrian ez da bat ere berria, aspalditik dator, jatorri historikoak ditu. XIX. mendean Miarritz herri oso txiki bat izatetik turismo herri inportante bat izatera igaro zen eta, horren ondotik, Donibane Lohizune ere berdin, eta horren ondotik kostaldeko hiri gehienak. Azkenean masa turismo bat zabaldu da XX. mendean zehar eta, gaur egun, Ipar Euskal Herria oso erakargarria da fenomeno horrengatik. Egundako turismoak hartzen du ekonomia arlo guztien artean toki garrantzitsuenetarikoa. Horren ondorioz, desoreka bat pizten da etxebizitza mailan. Zeren eta itsasoaz gozatzerak kanpotik heldu den jendeak konkurrentzia edo kompetentzia bat sortzen dute etxebizitzak erosteko edo alokatzeko, justuki bigarren etxebizitza gisa erabiltzeko. Eta hemen bizi nahi duen jendeak, Euskal Herritarrak, ahalmen ekonomiko txikiak dituztenak, azkenean baztertuak dira. Etxe horiek erosten dituztenak dirudunak dira, erabilera turistikoa eman nahi diotenak.

Beste fenomeno batzuek ere eragiten dute tendentzia horien sakontzean, ez bakarrik turismoak. Hain zuzen ere, kostaldean biltzen direla zerbitzu publiko guztiak, administrazioak, lan eta enplegu gehienak, azpiegitura guztiak (airportuak, trenbideak, bide nagusiak...) eta guzti horrek eragiten du (itsasoaren



**Peio**

**Etxeberri-Aintxart**

Donibane Lohitzuneko zinegotzia

**PEIO ETXEBERRI-AINTXART**

Donibane Lohitzuneko zinegotzi abertzalea eta EHBai-ko militantea da.



ARGAZKIA: EHBAL

presentziaz gain), prezioak ikaragarri altuak izatea kostaldean. Eta bertan prezioak izugarri altuak direnez gero, jendea saiatzan da gero eta ekialderago bizitzen eta etxeak Lapurdi barnealdean lortzen. Orduan, duela 30, 20, 10 urte kostaldera mugatuak zeuden fenomeno horiek Lapurdi barnealde osora ari dira zabaltzen. Gaur egun, nahiz eta prezio altuenak kostaldean diren, bilakaera azkarrenak Lapurdi barnealdean ematen dira. Etorkizun hurbilean pentsa daiteke fenomeno hori gehiago hedatuko dela, Baxenafarroara adibidez. Horrek islatzen du etxebizitzaren problematikaren dimentsioa Ipar Euskal Herrian.

### **Eta pandemiak, zergatik azkartu ditu tendentzia horiek?**

Pentsa zitekeen Covid-arekin jendea gutxiago mugitzen zenez, prezioak apalduko zirela. Merkatuaren fenomeno klasiko bat baitugu Ipar Euskal Herrian: etxebizitzaren eskaera oso altua, eta eskaintza oso apala. Beraz, eskaera apaltzen baldin bazen Covid-ari "esker", pentsatzen ahal genuen prezioak apalduko zirela. Baina ez da bat ere hori ikusi, alderantzizkoa baizik, prezioak ikaragarri igo dira. Orain arte ematen ziren fenomeno horiek azkartzen ari dira eta etxe bat salgai ezartzen delarik, segidan, egun bakarrean, saldua da, negoziaketarik gabe. Erosten dutenak gai dira zuzenean pagatzeko, mailegurik

gabe. Baldintza horietan oso zaila bilakatzen da hemengo jendearentzat, jende xumearentzat, etxe bat eskuratzea.

Covid-ak zergatik azkartu du hau? Ba izurritea biziki gaizki bizi izan delako hiri munduan, adibidez Parisen, Bordelen, hiri handietan. Dirudun jendeari iruditu zaio itxialdia oso zaila, eta hasi dira amesten beste etxe bat erostea baratzte batekin edo inguruan gune naturala duena, itsasoa kasu. Hiritik ihes egiteko toki bat. Horrek azkartu du hiri munduko jende dirudunaren erosteko borondatea edo nahia. Beraz, bigarren egoitzen fenomeno indartzen ari da, aurretik zetozen desorekak sakonduz.

### **Etxebizitzak eraikitzen jarraitzen da, eta hauen prezioak gorantz doaz. Eta ezin daiteke hau zertarako egiten den kontuan hartu gabe utzi. Hau da, nori zuzendutako etxeak diren eta zein erabilera eman nahi zaien.**

Jende gehienari irudi zaio, baita hautesi gehienei ere, arazoa dela merkaturaren garatzen den eskaintza ahul eta eskara altuaren arteko desoreka. Eta beraz, soluzioa dela gehiago eraikitzea. Baina ikusi dugu azken urte hauetan asko eraiki dela, bereziki kostaldean, eta prezioak ez direla apaldu, segitu dute gora egiten, lehen baino askoz azkarrago.

Horregatik diot, eta diagnostikoa nahiko partekatua da Ipar Euskal Herriko ezker munduan, urbanismo logikak

aldatu behar direla, eraiki eta eraiki jarraitu gabe. Mugimendu abertzaleari iruditu zaio lehenik saiatu behar dela bigarren egoitzak eta etxe huts guztiak biziartzat.

### **Azken hilabeteetan etxebizitzari loturiko protesta ziklo berri bat ireki dela ematen du, gero eta ohikoagoak bihurtu direlarik gai honi begirako ekintza eta mobilizazioak.**

Egia da etxebizitzaren inguruko protestak asko izaten ari direla momentu honetan. Duela urte zenbait jadanik gertatu ziren horrelako fenomeno batzuk, nahiko bortitzak ere batzuetan. Izan ziren bonbak, izan ziren legez kanpoko ekintzak, bortitzak edo ez bortitzak, sinbolikoak... Mugimendu politikoez ere, bereziki mugimendu abertzaleak (beste indar politikoez ez zuten gauza handiegirik egin), gai hori hartu zuten beren gain. Eragin nahiko mugatu batekin emaitzetan, baina hala ere kontzientzia hartze nahiko handia piztuz.

Orain, kontzientzia hartzea egina da, jende guztiak badaki badela hemen arazo bat etxebizitza mailan, eta denak, bakoitzak bere mailan, saiatzan dira soluzioak aurkitzen.

Ondorioz, protesta mugimendu bat piztu da, ideia argi batekin: populazioari hitza eman behar zaiola, plan inportante eta estrategiko horiek beti gelditzen baitira maila instituzionalean. Herriari ez



zaio sekula hitza ematen, adieraz dezan bere kezka, bere beldurra, bere grina eta bere frustrazioa. Eta ezin badu populazioak bere frustrazio hori adierazi modu demokratiko batez, beste modu batzuk bilatuko ditu horretarako. Hori ekiditeko behar zaio hitza eman.

**Etxebizitza eskubidea kolokan dago. Honek era berezian gazteei eragiten die eta "guk ere Euskal Herrian bizi nahi dugu" edo "hurrengo belaunaldiek Ipar Euskal Herrian bizitzeko aukerarik ez dugu izango" bezalakoak entzun dira.**

Uste dut hor badugula gai klabe bat. Aipatzen genuen arestian herri frustrazioa edo jendartearen frustrazioa. Ba frustrazio gehien duen jendea gazteria da.

Pentsa ezazu gaur egun Ipar Euskal Herrian bizitzeko behar dela lehenik zaharra izan, jubilatua izan eta diru asko eduki. Etxebizitzak erosten edo alokatzten dituztenak beti mota horretako jendea dira. Zaharrak edo/eta dirudunak. Eta hemengo gazteria behartua da ihes egitera, erbesteratzera. Hori oso gogorra zaie bai gazteriari eta bai gazteria horren gurasoei, betidanik hemen bizi izan direnak. Horregatik gazte mugimenduak piztu dira, eta hasi dira mobilizatzen beren adierazpen forma eta beren hiztegiarekin.

Horrek erakusten du badela sekulako beharra beste aterabide batzuk bilatzea, bestela frustrazio hori oso arriskutsua izan daiteke.

Espero dezagun mundu instituzionalak entzuten duela eskaera hau eta gauzak aldatuko direla.

**Guzti honekin zerbait argi azaleratu bada, politika publikoek gai honi era egokian erantzuteko dituzten hutsuak izan dira.**

Hori iritzi edo kultura politikoari loturiko kontu bat da. Ni ezker abertzalekoa naiz, eta beraz, nire ikuspegia ez da bati ere izanen frantses eskuineko eragile politiko baten antzekoa. Niri galdera

pausatuz gero, nik esanen dizut ene ustez akatsa zein den, eta ene ustez akatsa sistemikoa da.

Uste dut Europa osoko arazoa dela etxebizitza merkatu librean kudeatzen dela. Eta merkatua librea delarik, kontsideratzen da auto-orekatzeko gai dela. Hola pentsatuz uzten da merkatua libreki garatzen, gauzak saltzen edo erosten libreki. Azkenean horren ondorioak jasaten ditugu, ez ditugu kudeatzen.

Iruditzen zait etxebizitza merka-

tu librearen eskuetan uzten bada Ipar Euskal Herria bezalako gunen turistiko batean, merkatuak desorekak pizten dituela, eta indar publikoen erantzukizuna dela justuki desoreka horiek zuzentzea. Ez badu hori egiten, populazioa galdua da, eta etekinak ateratzen dituen jende mota bakarra dirudunak dira.

Eskuineko jendea konforme eta pozik da egoera honekin, beren hauteslegoa dirudun jende zahar horiek baitira. Orduan, sistema hori elikatzen dute, onura politikoak ateratzen dituztelako hortik. Baina, pentsatzen baldin bada, onura politiko guztiak aparte utzirik, jendearen beharra dela etxebizitza bat izatea, botere publikoek behar dute eskua sartu merkatu librean eta hura domestikatu. Hori egiteko badira soluzio batzuk, bai lege mailan, bai herri bakoitzeko urbanismo planetan, baina, erabili behar dira zentzu onerat, eta guri iruditzen zaigu ez dela hori egiten ari.

« Bigarren egoitzen fenomeno indartzen ari da, aurretik zetozen desorekak sakonduz

Merkatuaren fenomeno klasiko bat dugu Ipar Euskal Herrian: etxebizitzaren eskaera oso altua, eta eskaintza oso apala

Urbanismo logikak aldatu behar dira, eraiki eta eraiki jarraitu gabe »

**Eta zuen ustez, zer egin daiteke?**

Ez da mirakuluzko soluziorik. Demokrazia baten bizi gara eta demokrazia batean hauteskundeak irabazten dira edo galtzen dira. Eta, gaur egun, zoritxarrez, mugimendu abertzalea ez da aski azkarra politika publiko horiek aldatzeko.

Orduan, zer egin? Segitu borroka ideologiko horretan, jendea konbentzitzeko, gauzak behar direla aldatu. Lan hori egiten ari da. Mugimendu abertzaleak baditu hautetsiak toki edo herri askotan mezu hori zabaltzen, eta populazioak hartzen du kontzientzia pixkanaka-pixkanaka. Etorriko da momentua non populazioa aski konbentzitu izanen baita gehiengo politikoak aldatzeko, aurreko eta gaurko logika horiek sustengatzen dituzten politikariak kanporatzeko. Beste jende aurrerakoiago batzuk indar tokietan edo botere publiko tokietan ezartzeko. Gauzak aldatzen hasten ahalko dira. Momentuz ez gara oraindik hortan. Egoera deitoragarria da Ipar Euskal Herrian, oso grabea. Segitu behar dugu borrokan egoera kudeaezina bilakatu aitzin. ■



# «Jabe eta errenta ordaintzen dugunon arteko antitesia ikustarazten dugu, klase gatazkaren beste espresio bat»

## Zer da Maizterren Sindikatua eta zer- tarako sortu zen?

Donostialdeako Maizterren Sindikatua bizilagun antolatuen asanblada bat da, etxebizitza alokairuari loturiko arazoei kolektiboki aurre egiteko helburuarekin osatua. Alokairu duin, eskuragarri eta egonkorren alde egiten dugu lan, gizarte mobilizazioa sustatuz horretarako. Epe luzera begira, etxebizitza eskubidearen defentsa eta etxebizitzaren desmerkantilizazioa ditugu helburu.

Alokairu prezio altuen, etxe-kalera-teen eta putre funts zein jabe inmobiliario handien gehiegikerien aurka borrokatzeko tresna da sindikatua. Uste dugu pertsona guztioi etxebizitza izateko eskubidea bermatu behar zaigula, eta etxebizitzaren gizarte funtzioa eta erabilera-balioa lehenetsi behar direla, espekulazio eta turismo erabilerari loturik ematen den truke-balioaren ordez. Horregatik, alokairu prezioen erregulazioa, gizarte alokairu publikoen handiagotzea eta etxe hutsen mobilizazio urgentea eskatzen ditugu, gentrifikazio zein turistifikazioaren aurka egiteaz gain.

Etxebizitza eskubidearen defentsak jendetzak mobilizatzen ditu mundu osoan zehar. Donostialdean ere erantzun bat antolatzea oso beharrezkoa ikusi genuen, gizarte mobilizazioa, elkartasuna eta elkar-laguntza konbinatuz. Horrela sortu genuen Maizterren Sindikatua.

**Lan mundutik haratago doan, baina langileon bizitzetan nabarmen eragiten duen gai bati (etxebizitzarena), logika sozio-sindikala batetik erantzuten diozue.** Bai, lan mundutik haratago doa, baina bete-betean kokatzen da kapitala vs bizitza



**ANDONI EGIA** Geografian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean, Gasteizen. Giza Garapen Iraunkorra, Garapen Lokala eta Globalizazioan masterra (UdG) eta Lurralde-Plangintza eta Ingurune-Kudeaketan masterra Bartzelonako Unibertsitatean. Maizterren Sindikatuko kidea.

talka horretan. Esan dezakegu lan munduaren B alde dela. Horrenbestez, sindikatu forma hartu izana ez da kasualitatea.

Sindikalgintza klasikoak lan munduan ekoizpenerako baliabideen desjabetzetik eratorritzen diren mozkinak disputatzen dituen bezala (lana vs kapitala talka), guk jabe eta errenta ordaintzen dugunon arteko antitesia ikustarazten dugu, klase gatazkaren beste espresio bat bezala. Gatazka hau, ikuspegi intersektionalitateetik ulertzen dugu, genero arrakalak, arrazismo estrukturalak... are eta larriagoa bilakatzen baitute jada larria den etxebizitzaren arazoa.

Horregatik, klase bezala, elkarlan eta kolektibotasunaren bidez, jabetza duten horiekiko gatazkak sortuz, gure eskubide kolektiboak defendatzea bilatzen dugu. Horri begira, negoziazio kolektiboak ahalbidetzea dugu helburu taktikoa. Dena den, gure azken helburuak jabe eta ez-jabe horien arteko harreman sozialak gaititu eta gure hiriak desmerkantilizatzea eta sozializatzea lirateke.

Horretarako, uste dugu sindikatu forma (Euskal Herrian indarra eta zeresana duena), eredu aproposa dela. Sindikatu izaerak berak ikustarazten baitu jabe eta ez-jabeen arteko harreman sozial hau klase gatazkaren beste espresio bat dela, etxebizitzaren eremuan erreproduzitzen dena.

Sindikatu batekin elkarrizketan ari garela aprobeztatuz, argi utzi nahi dugu zeharo irekita gaudela lan munduko sindikatuarekin aliantza estrategiko bat garatzera, txanpon beraren bi alde islatzen baititugu. Askotan, lan eremuan sindikalgintzaren bidez irabazten ditugun eskubide horiek, etxebizitzaren eremuan galtzen baititugu, espekulazioaren eta errenten igoeren bidez. Klase jabeek, etxebizitzaren propietate forman (enpresa propietate forman bezala), guk sortzen dugun balioa xurgatzen dute.

### **Zein dira, momentuz, garatzen dituzuen lan-ildo nagusiak?**

Lan eremu ezberdinak daukagu. Batetik, eta nagusiena, aholkularitza kolektiboarena da. Normalean maizterrok etxebizitzarekin ditugun arazoak modu indibidualean bizi ditugu. Arazo horiei kolektiboki erantzuteko, aholkularitza puntu ireki bat daukagu, bi asteen behin batzen dena. Horietan, web orriaren edo emailaren bidez jasotzen ditugun arazo edo kasu zehatzei erantzuten diegu. Baditugu horretarako baliabideak, abokatuak, adibidez. Horregatik aldarrikatzen dugu afiliatzearen beharra, afiliazioak eskaintzen dizkigulako gure borroka garatzeko ezinbestekoak diren

tresnak: erresistentzia kutxa, baliabide ekonomikoak, juridikoak... Hemen-dik ere animatu nahiko genuke jendea maizterren sindikatura afiliatzea.

Hori, esan dezagun, gatazka indibidualei dagokionez. Baina, lehen esan dudana bezala, etxebizitzarena arazo estruktural bat da, eta, beraz, estrukturalki ere eragin nahi dugu. Horri loturik daude, funts putreen aurkako borroka edo SAREBekin ireki dugun gatazka.

Horrez gain, borroka hauek lurraldean hedatzea ere bilatzen dugu, hiriarren inguruan lan egiten duten beste eragileekin artikulazioak bilatuz eta hiriarren desmerkantilizazioarentz elkarlan esparruak sustatuz.

### **Euskal Herriko beste herri batzuetan ere badaude etxebizitza eskubidea-**

« Alokairu duin, eskuragarri eta egonkorren alde egiten dugu lan

Kapital metaketarako esparru nagusienetakoa bihurtu da espekulazio urbanistikoa, etxebizitzarako daukagun eskubidea jomugan jarritz »

### **ren aldeko mugimenduak antolatuturik. Zuena Donostiakoa da. Errealitate espezifikoko horren diagnostikorik baduzue? Zein ezaugarri bereizgarri ditu? Zein eragin du Donostia turismo hiri izateak?**

Ezaguna da Donostia dela estatuan alokairu metro karratua garestienetakoa duen hiriburua. Eta hau ez da kasualitatea. Donostia betidanik egon da turismora oso bideratuta, baina azken urteetan turistifikazio masibo bat ematen ari da. Kapital metaketarako esparru nagusienetakoa bihurtu da espekulazio urbanistikoa, etxebizitzarako daukagun eskubidea jomugan jarritz.

Honek guztiak oso politika zehatzak dauzka atzetik. Hor kokatzen ditugu azken urte hauetan turistifikaziora begira garatu diren politika publiko guztiak. Helburu nagusi gisa Donostia nazioarteko mapan jarritz turistak erakartzea izan dutenak. Horrek ezinbestean dakar etxebizitzaren garestitzea.

### **Azken aldian funts putre deiturikoen gaia sarritan entzuten da. Hauek Donostian ere badute presentzia. Zer dira edo nola funtzionatzen dute? Eta zein eragin daukate etxebizitzaren alokairuetan?**

Funts putreak nazioarteko inbertsio funtsak dira, zeintzuek etxebizitzaren merkaturak jokatzen duten.

Daukaten inbertsio gaitasuna baliatzen dute, eraikin osoak erosiz merke daudenean (sarritan bankuen jabetzakoak direnak, etxe kaleratzeen bidez eskuratuak, edo SAREBek bezala aktibo toxikoak erosiz lortutakoak) ondoren horiekin espekulatzeko. Funts hauek badaukate gaitasuna zain egoteko, merkaturako prezioak igotzen direnean hauek salduz espekulatzeko. Esan dezakegu, kapital inbertsio funtsek jabetza handiak eskuratu eta hauekin merkaturak beraien zerbitzura jartzeko mekanismoak direla funts putreak.

### **Azken urteetan alokairuen prezioek etengabe gorantz egin dute. Alokai-**





**ruen prezioen igoera horri aurre egiteko, zein erantzun eman daitezke zuena bezalako mugimenduetatik?**

Erantzun nagusi eta zentrala, kaltetuen eta biztanleen auto-antolakuntza prozesuetan kokatu behar dela uste dugu. Gure buruak salbatzeko baliabideak eta indarrak sortu eta partekatu behar ditugula. Mobilizazio sozialaren bidez, botere establezitua gainditu eta desbordatzearen bidez bakarrik egin ahal izango baitugu aurrera. Bide horretan, bat egiten dugu bai nazioartean, bai estatu mailan eta bai Euskal Herriko beste tokietan lanean ari diren eragile guzti horiekin.

Badaude horretarako tresna ezberdinak, adibidez alokairuen greba, baina baita ere etxegabetzeak geldiaraztea. Helburua, orain arte ikusezinak ziren gatazka guzti horiek mahai gainean jarri eta, borrokatuz, presio sozialaren bidez, egoerari buelta ematea litzateke.

**Eta, zer espero daiteke instituzioez? Zein pausu eman daitezke?**

Esango nuke guk presionatzeko daukagun indarraren araberakoa dela instituzioetatik espero daitekeena. Dena den, instituzioentzat etxebizitzarena nolabaiteko marra gorri bat izan beharko litzatekeela argi dugu, osasuna, hezkuntza etab. diren moduan. Giza eskubide bat

den heinean, mundu guztiak bermatua izan beharko lukeena.

Hori jendartearen mobilizazioaren, antolakuntzaren eta baliabideak lortu eta partekatzearen bidez etorriko dela uste dugu, botere publikoetatik gehiegi espero gabe. Hala ere, guk ez dugu inongo borroka esparrurik alde batera uzten, eta eremu instituzionala ere borroka esparru bat da. Bertan ere presente egon beharko gara beraz, baina beti ere jarrera desbordatzaile baten bidez, negoziazio taktiko eta politikeroetan erori gabe.

LAN PARLAMENTARIOAZ GAIN (eta lan parlamentarioa ere ezinbestekoa da, zeren eskubide sozial hauek legez bermatu behar dira) pauso bat haratago joan eta etxebizitzaren desmerkantilizazioa aldarrikatu behar dugula uste dugu. Hiriak bizitzeko direla eta ez negozioa egiteko. Eta aldarrikatzeaz gain, hori posible egingo duten borrokek eta autogestiorako espazioak sortu beharko dira.

Bukatzeko azken dei bat egin nahiko genioke jendeari, sindikatura gerturatzeko, afiliatzeko eta edozein arazo edukiz gero gurekin harremanetan jartzeko. Eta, beste dei bat ere LAB eta gainontzeko sindikatu guztiei, elkarlanerako esparruak sortu eta aliantza estrategiko bat martxan jartzeko. ■

« Gure buruak salbatzeko baliabideak eta indarrak sortu eta partekatu behar ditugu

Etxebizitza eskubidearen defentsa eta etxebizitzaren desmerkantilizazioa ditugu helburu »



**ARANTXA TIRADO SÁNCHEZ** es politóloga. Doctora en Relaciones Internacionales por la Universitat Autònoma de Barcelona (UAB) y Doctora en Estudios Latinoamericanos por la Universidad Nacional Autónoma de México (UNAM), país en el que residió once años. Es autora, entre otros, del libro *La clase obrera no va al paraíso* (Ediciones Akal, 2016), escrito junto a Ricardo Romero Laullón, “Nega”. Actualmente es profesora asociada del Departamento de Ciencia Política y Derecho Público de la UAB e investigadora del Centro Estratégico Latinoamericano de Geopolítica (CELAG)

**E**n los últimos años de este siglo XXI estamos asistiendo a un resurgir de los debates sobre la clase obrera. Desde aquellos que reflexionan sobre su pervivencia como clase en sí, apelando a los cambios producidos en el ámbito del mundo del trabajo y cómo están transformando la estructura de las clases sociales; hasta los que se plantean si la clase obrera es una clase para sí, consciente de sus intereses económicos y políticos diferenciados respecto a otras clases sociales y con voluntad de ejercer su histórico papel de sujeto revolucionario.

Se podría afirmar que, tras muchos años de ostracismo en la academia y en el debate público, el término clase obrera y, sobre todo, la conciencia de que la visión de clase es fundamental para entender los intereses en pugna en cualquier conflicto social, se va abriendo paso. Sin embargo, el panorama no es tan optimista como quisiéramos quienes defendemos que la clase obrera sigue siendo no sólo una categoría analítica útil sino un sujeto social imprescindible para la lucha política y la transformación social que tienen como propósito la superación del capitalismo.

Por paradójico que parezca, estos debates se dan, en muchas ocasiones, en la esfera académica o meramente intelectual, a través de la publicación de libros y charlas en las que, aunque resulte increíble, a veces es difícil encontrar a miembros de la clase obrera. La reflexión también se da en el ámbito sindical, bien sea

## Orgullo de barrio, conciencia de clase y lucha obrera



**Arantxa  
Tirado  
Sánchez**

**Politóloga**

como ejercicio de autorreflexión o como formación teórica y, en menor medida, en los partidos políticos, donde la clase obrera sigue siendo, en términos generales, la gran ausente, sobre todo entre sus cuadros de mando. Y, sí, hablamos de los partidos de la izquierda estatal, conscientes de que cada territorio tiene sus espe-

cificidades pero que, no obstante ellas, la infrarrepresentación de la clase obrera en los partidos de la izquierda es un problema histórico de los partidos, incluyendo a los comunistas, desde hace décadas<sup>1</sup>.

Uno de los temas recurrentes cada vez que aparece la clase obrera en el ho-

<sup>1</sup> Para profundizar en este argumento puede consultarse el texto que escribí en la revista *Catarsi Magazin*: <https://catarsimagazin.cat/una-revolta-obrerista-en-les-organitzacions/>

rizonte del debate es la reflexión sobre la identidad obrera. Aunque sabemos que la clase no es una simple identidad, si bien puede operar como tal, parece que hay quienes se enfocan en negar el papel político de la clase obrera arguyendo que la gente ya no se siente identificada con el término. Se arguye que la clase obrera ha mutado, que los trabajadores y trabajadoras fabriles son cada vez menos y, por tanto, ya no tendríamos obreros como tales. Se obvia, por supuesto, que la clase obrera abarca a un conjunto de trabajadores que trasciende el trabajo en un entorno industrial y que, bajo nuestro criterio, se trata de un término político que sigue vigente en tanto en cuanto muchas personas se identifican con él. Pero, lo más importante, la clase obrera sigue existiendo porque siguen existiendo las relaciones sociales capitalistas que le dan origen. Esto significa que tiene enfrente a otra clase antagónica, la capitalista, que sigue lucrándose de su esfuerzo y sudor, en definitiva, de su trabajo. Si el capitalismo no ha desaparecido, la clase obrera tampoco. Por tanto, la clase obrera entendida como sinónimo de clase trabajadora es no sólo una categoría analítica sino una realidad material incuestionable. Salvo para quienes llevan décadas negándola, sea desde la derecha o desde posiciones que parecen ubicarse en una izquierda post-marxista.

Ahora bien, afirmar su existencia no implica necesariamente negar su transformación, tanto en su morfología, como en su composición más heterogénea, en la manera de socializarse o en los niveles de conciencia respecto a épocas anteriores. No puede negarse que, tras décadas de bombardeo neoliberal, los valores del sistema han penetrado entre algunos sectores de la clase obrera, que han adoptado una visión individualista que apuesta por la solución particular a problemas que son colectivos, o se resigna frente a su lugar en la jerarquía

social. Esto se expresa también en sus organizaciones de representación sindical, que han optado por una línea de concertación y diálogo tripartito, convirtiendo a los grandes sindicatos en “empresas de servicios” para la clase trabajadora, más que en herramientas de lucha. Lejos queda en la historia la función de los sindicatos como lugares de socialización integral de la clase obrera, formación política e, incluso, espacios de ocio.

Ante esta clase obrera actual y las nuevas realidades de un mundo del trabajo cada vez más flexible, atomizado, externalizado, con una precarización en aumento y una mecanización e informatización de los procesos productivos que expulsa a los trabajadores de la fábrica llevándolos en ocasiones a un falso autoempleo en el sector servicios, surgen multitud de preguntas: ¿Cómo se reproduce en este siglo XXI, en el que el capitalismo está transformándose de manera vertiginosa y, con él, las relaciones laborales, la identidad de clase? ¿Podemos afirmar que el lugar de trabajo atomizado y unas

relaciones laborales fragmentadas, y más todavía tras la pandemia, ya no son el espacio de socialización principal de la clase obrera? ¿Dónde queda, entonces, el papel de la lucha sindical en este escenario en que, además, los grandes sindicatos vienen perdiendo afiliación en los últimos tiempos? ¿Se puede afirmar que las luchas obreras ya no son lo que eran ante una realidad donde observamos, producto de unos abusos empresariales incesantes, una multiplicidad de focos de conflicto laboral que reciben poca solidaridad generalizada? ¿Estamos asistiendo a un proceso paradójico de descrédito de la acción sindical justo en el momento histórico en que más necesitamos de los sindicatos para, cuando menos, evitar la involución de derechos conquistados hace décadas? ¿Y si trabajamos cada vez más aislados y sólo acudimos al sindicato cuando tenemos problemas en el trabajo, cómo mantenemos nuestra identidad de clase? Aquí es donde aparece la socialización en el barrio y las luchas que desde ahí se han desplegado y se están desplegando como vía alternativa o complementaria a la sindical o laboral -siempre imprescindible- para mantener una cohesión de la clase obrera.

## **EL BARRIO EN LA LUCHA DE CLASES**

La importancia de los barrios obreros y el protagonismo de sus habitantes en las luchas sociales no es nueva. Ha sido abordada por la Sociología urbana desde hace años. En el caso del Estado español, durante el periodo conocido como Transición a la democracia, la organización vecinal de los barrios obreros constituyó un bastión para oponerse a la dictadura a la vez que se conseguían mejoras en las infraestructuras y servicios de los barrios. Muchas de estas asociaciones de vecinos y vecinas fueron fundadas por militantes de la izquierda comunista que, a su vez, estaba articulada en otros frentes de intervención: sindicato, partido, etc. Así, la lucha sindical o política encontraba también

---

## **Estamos asistiendo a un resurgir de los debates sobre la clase obrera**

### **Si el capitalismo no ha desaparecido, la clase obrero tampoco**

### **¿Si trabajamos cada vez más aislados, cómo mantenemos nuestra identidad de clase?**

un correlato en la lucha vecinal y ambas iban de la mano.

Con el inicio del régimen del 78 y la "modernización", en términos generales, de los barrios obreros a través del incremento de la inversión pública (en el caso barcelonés, la excusa de las Olimpiadas de 1992 marcó un antes y un después en el lavado de cara a los barrios de la periferia), se produjo un reflujo en la organización vecinal, coincidente también con el reflujo de las organizaciones políticas que se encontraban detrás de ellas. Eran los tiempos del pelotazo económico y de la hegemonía estatal del PSOE que abrió la puerta a la desregulación laboral a través de diversas contrarreformas sumamente lesivas para los intereses de la clase trabajadora.

Quizás por un pasado de lucha barrial, o por la simple conciencia de saberse habitantes de territorios marginados o relegados en la periferia de las ciudades, la identificación con el barrio de origen ha ido de la mano de un orgullo de barrio para la clase obrera. Esto es especialmente acusado en las primeras generaciones que han nacido en él, a diferencia de unos padres y madres que provenían de una migración del campo a la ciudad. Pero este orgullo de barrio no implica, por sí mismo, la conciencia de la necesidad de luchar por los problemas colectivos que afectan a los integrantes del barrio, el establecimiento de redes de cooperación o la reactivación de las asociaciones vecinales. Puede expresarse en un orgullo replegado en un identitarismo mal entendido que excluye a la nueva migración de origen extranjero, por ejemplo, o que se basa en la nostalgia de una infancia que se idealiza en la memoria.

No obstante, también hay otro orgullo de barrio que está sirviendo para generar conciencia y acción colectiva, a la vez que se refuerzan los vínculos entre la clase trabajadora y su identidad de clase. Es el orgullo politizado de aquellos sectores que dinamizan la vida del barrio

a través de múltiples asociaciones. En algunos casos, la movilización del 15M dejó un poso en el tejido asociativo de los barrios, reactivando unas asociaciones de vecinos rejuvenecidas y renovadas con nuevos integrantes o creando nuevas organizaciones que surgen con la llegada de nuevos vecinos al barrio o al calor de determinados conflictos coyunturales. En ese sentido, el barrio, como lugar donde se expresan en primera instancia muchos de los problemas que aquejan a la clase trabajadora como es el alto precio de la vivienda, la especulación inmobiliaria y los desahucios, la gentrificación y la turistificación que expulsa a los vecinos, puede convertirse (y se convierte) en el lugar para intervenir, sea en la modalidad asociativa que sea (Plataforma de Afectados por la Hipoteca, sindicatos de inquilinos e inquilinas, asociaciones o asambleas vecinales, sindicatos de clase, comités de barrio, etc.).

---

**El orgullo de barrio sirve para generar conciencia y acción colectiva.**

**La identidad obrera puede darse producto de una identificación con la pertenencia a un barrio obrero**

**Responder a las necesidades materiales es prioritario pero también lo es reforzar la identidad de clase**

## **LA CONSTRUCCIÓN DE LA IDENTIDAD OBRERA DESDE EL BARRIO**

Pasar de la identidad de barrio obrero, es decir, de una identificación con la pertenencia a un lugar que te vincula a una clase a una conciencia de clase para sí es el gran reto implícito en las luchas que se despliegan en el barrio. De hecho, los conflictos, sumados a la identidad de pertenencia al barrio, activan la generación de conciencia, pero no son garantía de que se resuelvan en un sentido de izquierdas o revolucionario. Pueden, por el contrario, ser el caldo de cultivo en el que intenta abreviar la ultraderecha, azuzando conflictos de convivencia existentes o generando conflictos inexistentes en lógicas de división de la clase obrera. Es la diferencia entre poner el foco en los desahucios o en la "okupación" de viviendas.

Así, la función de los barrios populares como lugar de lucha y de construcción cultural de una identidad colectiva en términos de clase dependerá de la correlación de fuerzas existente en cada caso. El balance entre los vecinos que asocian el orgullo de barrio vinculado a una lucha por su mejora y quienes se contentan con una mera exaltación de pertenencia dará la respuesta para cada contexto. En todo caso, es importante destacar que la mera identificación puede, no obstante, ser un primer paso para la toma de conciencia de pertenecer a un colectivo, con unos intereses diferenciados, lo que pudiera llevar a la acción colectiva en determinadas coyunturas. Podemos pensar en los casos de los vecinos del Carmelo, en Barcelona, movilizándose y organizándose tras el socavón producido en 2005 por unas obras del metro en el barrio que obligaron a desalojar a cientos de vecinos durante meses y pusieron sobre la mesa el problema de la corrupción en las obras públicas catalanas (el famoso 3%). Pero también en los vecinos del barrio del Gamonal en Burgos, opuestos al gasto público en las obras de un bulevar en un contexto de graves problemas



económicos en el barrio. El resultado de las luchas será entonces una combinación de la correlación de fuerzas preexistente, así como de la capacidad de la lucha de impactar en la conciencia colectiva y desatar otros niveles de participación. Lo que parece evidente es que, en todas ellas, se produce al menos una toma de conciencia colectiva que puede abonar en una identificación no sólo barrial sino también de clase. Y que, cuando ambas confluyen y cristalizan, dan lugar a experiencias tan sugerentes como el proyecto de L'Obrera<sup>2</sup> en Sabadell o el movimiento La Poderosa<sup>3</sup> que surgió en las villas argentinas pero que ya tiene implantación en varios países de Suramérica y cuenta incluso con una publicación mensual, "La Garganta Poderosa", y una radio propia.

Algunos autores defienden que la clase obrera sólo puede existir en tanto que lucha. Siguiendo esta argumentación, la clase obrera en el barrio sólo existiría como tal si está movilizada en una lógica de clase. Sentimos diferir de esta afirmación. Igual que puede existir clase obrera en sí, aunque no tenga conciencia de clase para sí, siguiendo la diferenciación hecha desde el marxismo entre una clase obrera que existe como tal y una clase obrera que es consciente de su lugar en la historia y su papel para transformarla; también puede existir un orgullo de barrio en sí que pueda devenir un orgullo de barrio para sí. La politización, por supuesto, es necesaria y en muchas ocasiones se hará en medio de un conflicto que lleve a una lucha concreta. Pero defendemos que esa conciencia e identidad más o menos latente, en relación dialéctica con un entorno laboral y unas condiciones de vida materiales determinadas en los barrios, es la base imprescindible sobre la que puede detonar la movilización y hasta la organización social. Y que la identidad obrera puede darse producto

de una identificación con la pertenencia a un barrio obrero, incluso sin luchar desde él. Se puede tener conciencia de clase sin lucha pero, desde luego, no se puede tener lucha sin conciencia de clase pues, tarde o temprano, esta emergerá al calor de la propia lucha.

En un momento en que el desempleo hace estragos entre los jóvenes del Estado, y cada vez más entre los adultos que van a pasar de los ERTes a los EREs, el barrio aparece como un lugar para seguir aglutinando la conciencia de pertenencia colectiva a una clase desposeída a la que le están negando hasta la última posibilidad que le queda para subsistir en este sistema: vender su fuerza de trabajo. Además, un elemento fundamental para dimensionar la importancia del barrio para hacer labor política y sindical es que en los barrios obreros se concentra esa juventud trabajadora, que no es solamente la "mejor preparada de la Historia" con estudios universitarios sino el grueso de la juventud obrera que, en términos generales, está menos movilizada y se siente menos interpelada por la política que otros sectores de la juventud. Una juventud que padece en mayor medida el desempleo frente a la juventud universitaria<sup>4</sup> que, por su parte, está más empleada, aunque en muchas ocasiones desempeñando labores que poco o nada tienen que ver con sus estudios. Sin esa juventud obrera, y sin la implicación de la clase obrera en general, cualquier transformación política que se plantee no pasará de reproducir el actual estado de cosas y, por tanto, la perpetuación de las estructuras existentes que son las mismas que generan todos los problemas que enfrentamos como clase.

### ALGUNAS REFLEXIONES FINALES

En un contexto en que la clase obre-

ra está más fragmentada o fuera del ámbito laboral y carece de lugares de socialización propios de su tradición, las experiencias de organización y lucha en el barrio pueden servir para aportar alternativas a la hora de reforzar la conciencia de clase y la identidad obrera. Por eso es tan importante la labor que están teniendo los movimientos que desde los barrios tratan de generar tejido social y experiencias alternativas de autoorganización de la clase trabajadora, desde nuevos planteamientos y, en ocasiones, también con un relevo generacional. Por ejemplo, la pandemia ha provocado que muchos vecinos se hayan tenido que movilizar para prestarse apoyo mutuo ante el impacto de la crisis agudizada por la COVID-19 de manera coyuntural. Pero el aumento de los conflictos, bien sea en el ámbito laboral o en el espacio territorial, requiere el reforzamiento de organizaciones de lucha con objetivos de largo aliento, que trasciendan lo meramente material y asistencial. Responder a las necesidades materiales es prioritario y fundamental pero también lo es reforzar la identidad y la conciencia de la clase obrera. Y, por qué no, su autoestima. Y esta se logra gracias a las victorias conseguidas en la lucha, pero también con proyectos que vinculan el orgullo de barrio al orgullo de clase de manera abierta, en una intervención que es tanto política como cultural. En el Estado estamos lejos de conseguir lo que han logrado desde Argentina a gran escala con el movimiento La Poderosa, pero haríamos bien en fijarnos en estas experiencias de otras latitudes, además de las que tenemos por toda la geografía estatal, porque en su exaltación del orgullo de barrio, indisociable de un rabioso orgullo de clase, está la clave para impulsar la acción de una clase obrera que no se resigna al papel que el capitalismo le ofrece sino al que ella construye en la historia con su acción consciente. ■

2 [https://twitter.com/l\\_obrera](https://twitter.com/l_obrera)

3 <https://lapoderosa.org.ar>

4 [https://www.mites.gob.es/ficheros/ministerio/sec\\_trabajo/analisis\\_mercado\\_trabajo/jovenes/2020/Junio2020.pdf](https://www.mites.gob.es/ficheros/ministerio/sec_trabajo/analisis_mercado_trabajo/jovenes/2020/Junio2020.pdf)

**E**rreportaia honetan trantsizio deiturikoaren hastapenaren pisu nabarmena izan zuten auzo-elkarteen inguruan jardun nahi izan dugu, elkarte hauek baitaude gure hirien konfigurazioan eragile aktibo izan diren herri mugimendu eta eragile askoren oinarrian. Orduko borrokan memoria jaso nahi izan dugu, egindako borroka

demokratikoaren memoria, egun bizi dugun hiriak ulertzen saiatzeko. Horretarako, Carlos Trenor, herri mugimendu askotan aritua, eta Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha elkarteko sortzaileetakoarekin hitz egin dugu, bere eskutik jasoz auzo elkarte horiek izandakoaren errelatoa.

# Borroka demokratikoaren memoria: auzo-elkartek

**E**gungo hiriak eta berriak garatzen ari diren borroka ulertu ahal izateko, nondik gatozen gogoratzea ezinbestekoa da. Memoria egitea. Auzoetan garaturiko borrokek, auzo elkarteek, maila lokalean egindako herrigintza ekarpenek, gure hiri eta herriak eraldatu baitzituzten, eta hein handi batean egungo Euskal Herria ere markatzen jarraitzen dute. Horregatik, orduko borroka demokratikoko memoriaren zati txiki bat jaso nahi izan dugu Carlos Trenorren eskutik, Donostiako Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha auzo elkartean ibilitakoa.

Trenorrek, frankismoaren azken urteetan, trantsizio deituriko garaian, bizi zen klima oroitarazten digu: "60 eta 70eko hamarkadetan giro politiko berezia zegoen. Erakunde politiko eta sindikalen aurkako errepresioa bortitza zen". Gerra zibila bizi izan zuen jendearen beldurra du gogoan, fusilamentuena. Baina, gazte belaunaldi berrien eta nazioarteko mugimendu emantzipatzaileen eraginpean "lantokietan langileen


antolakuntza eta borroka hauspotu ziren, eta herri zein auzoetan mugimendu asanblearioen hastapenak bizi izan genituen, denborarekin indar handia hartu zutenak".

Garai hartan auzoetako bizi-baldintzak kaskarrak zirela azaltzen du Treno-

rek: "Ia ez zegoen ekipamendurik: ez zegoen eskolarik, ez osasun-zerbitzurik, ez kirol-ekipamendurik. Auzoak hirigintza anarkikoan sortu ziren, inolako eskrupulurik gabeko eraikitzaileek bultzaturik, epe motzean onura erraza bilatuz, administrazioaren laguntzarekin". Horregatik, auzo elkarteen hasierako aldarrikapenak, hirigintzari oso lotuak zeudela nabarmentzen du.

1964an, elkarteen inguruko legea onartu zen, "Ley Fraga" gisa ezaguna, eta horren bidez, frankismoan lehen aldiz, kultur eta auzo elkarteak legeztatu ziren, baita Donostian ere. Legalizazioa lortzeko, estatutu formalak idatzi behar zituzten elkarteek, baina praktikan era asanblearioan funtzionatzen zutela defendatzen du Trenorrek. Horren adibide da Egian sortu zuten *Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha*. "Horizontalki funtzionatzen genuen, nahi zuenak parte hartzea eta erabakitzea lehenetsiz".

Funtsean, auzo elkarte horiek, auzoetako bizi baldintzetan hobekuntzak bilatzen zituzten. Hori zuten helburu



## VILLA SALIAKO BORROKA

**V**illa Salia izeneko etxea Gizarte Aurreikuspeneko Institutu Nazionalarena (INP) zen, Donostiako Egia auzoan kokatua. Medikamentu biltegi moduan funtzionatu izan zuen, baina 70. hamarkada erdialdean abandonatua eta botika iraungiz betea zegoen. Auzoan beharrezko jarduerak aurrera eramateko tokirik ez zegoenez, begiz jo zuten auzokideek etxe hura. 1976ko uztailean, auzokideak antolatu eta etxea okupatu zuten. Poliziak okupatzaileak kanporatu eta etxea hesiz ixtea lortu zuen ordea.

Urte bete pasata, 1977ko uztailean, INPk etxea saldu behar zuenaren zurrumurrua zabaldu zen. Egoera horren aurrean, berehala elkartu ziren batzarrean auzotarrak eta salmenta hori ekiditeko antolatzen hasi. Lehen pausu gisa, batzorde bat osatu eta udalarekin zein INPrekin hitz egitera joan ziren. Udalari etxea erosi eta auzoaren esku jartzeko eskaera luzatu zioten.

Udalaren partetik mugitzeko intentziorik ikusten ez zutenez, uztailaren 14tik aurrera auzoan ekintzak gogortzen joan ziren: batzarra eta manifestazioa egin zituzten egun horretan bertan; 15ean, kontzentrazioa INPren eraikinean, enkantea geraraz zezaten exijitzeko; 16an, kontzentrazioa gobernu zibilaren aurrean; 19an, batzarra frantziskotarren komentuan. Eta beste batzar bat 22an. Hala ere, INPk partikular bati saldu zion etxea. Egjatarrek sutan zeuden.

Uztailaren 24an, 500 bat lagun udaletxe parean agertu ziren, etxearen salmenta atzera bota eta udalak eros zezan exijitzeko. 26an, bigarren manifestazio bat udaletxera. Orduan ere 500 bat lagun abiatu ziren Egjatik, baina beste auzoetako jende asko elkartu zitzaizen harako bidean. Hedabideetara ere iritsi zen gaia, hiri guztian bolo-bolo hedatuz. Ma-

nifestariak indarka udaletxera sartzea lortu eta udalbatza aretoa okupatu zuten egun hartan.

Biharamunean, INPk enkantea bertan behera utzi zuela zabaldu zuten hedabideek. Auzoko jendea fidatu ez, eta berriz ere udalbatza aretoa okupatzea lortu zuten. Hantxe, beste erremediorik ez zuela, jarduneko alkate gisa ari zen Muñoz Mugicak (Otzau kanpoan baitzen), etxea erosi eta auzoari uzteko konpromisoa sinatu zuen. Eta bete zuen hitzemandakoa: Villa Saliako etxea erosi eta auzotarren esku utzi zuen udalak.

Orduz geroztik, Villa Saliako etxeak auzoaren unean uneko arazo eta premiei erantzuteko espazio gisa funtzionatu du. Bertan izan dira haurtzaindegia, euskaltegia edo orain bezala Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxea, auzoko beharren zerbitzura.



Auzotarrek udalbatza okupatu ostean, jarduneko alkate gisa ari zen Muñoz Mugica, etxea erosi eta auzoari uzteko konpromisoa sinatu zuen momentua. | ARGIA ARTXIBOA CC BY SA • GORDEGIA.EUS-EN BIDEZ

nagusi. "Hirigintzan hobekuntzak borrokatzen genituen, trafikoari loturiko gaietan, etxebizitzan, osasun zerbitzuetan, kultur edo kirol ekipamenduetan". Horren adibide da Egjiako auzoan Villa Salia etxearen defentsan garaturiko borroka.

Auzo asanbladetan, ordea, auzoetako problematika zehatzak gainditzen

zituzten eztabaidak ere ematen ziren. Frankismo garaian zein trantsizio deiturikoaren hastapenetan, alderdi politikoak ez zeuden oraindik legezatuak. Ondorioz, eztabaida politikoak emateko ez zegoen espaziorik, eta auzo elkar-teak bihurtu ziren, hein handi batean, horretarako toki. Adibidez, amnistiaren inguruan jarduten zirela gogoan du Trenorrek. Baina ez solasten soilik. Borro-

kak ere, esparru lokaletik haratago joan ziren, auzoetako arazo zehatzetara mugatu gabe. Errepresioaren aurkako borroka, elkartasun internazionalistarenak edo energia nuklearraren aurkakoak ere izan zuten beraien espazioa auzo elkar-teetan. "Aktibismo handia zegoen, eta gazteen parte hartzea masiboa zen, manifestazioetan, asanbladetan, pankarta eta propagandarekin".



Bazegoen ere auzo elkarteak guxtiesten zituenik, klaseartekoak edo interklasistak zirelako, eta beraz, ez zirelako sistemaren aurkako ardatz zentrallean, hau da, kapitala vs lana gatazkan, zentratzen. Dena den, "frogatu zen borroka horiek osagarritzeko eta elkar elikatzeke gai zirela. Adibidez, auzoetatik langile mugimenduko borrokei elkartasuna adierazten zitzairen, mobilizazioak, erresistentzia kutxak... garatuz". Horren eredu da Martxoaren 3ko gertakariak Donostiako auzo elkarteetatik emandako erantzun indartsua.

### HERENTZIAN GAUR ARTE

Auzo elkarte eta borroka guzti horiek ondare sakonak utzi dituzte. Politikoki izan zuten eragina nabarmentzekoa da: politizazio eta kontzientziazio esparru izan ziren, oinarrizko militantzian trebatzeko tokia, euskal identitate zein klase kontzientzia eta harrotasuna garatzeko espazioa. Hori gutxi balitz, antolakuntza zein borroka molde berriak frogatzeko ere balio izan zuten. Azken finean, auzoetan borroka egiteak sistema politikoak demokratizatorantz tentsionatzen ditu, auzoetako biztanleak eskubidedun

---

**Legalizazioa lortzeko, estatutu formalak idatzi behar zituzten elkarteek, baina praktikan era asanblearioan funtzionatzen zuten**

**Auzo elkarteak sistemak bazterrean uzten dituen sektore sozialen – langileria- parte-hartze politikoa bultzatzeko tresna izan dira**

"hiritar" gisa proiektatzen baititu, esku-bide politikoak hedatuz. Auzo elkarteek horren itzulpen organizatibo gisa funtzionatu izan dute, sistemak bazterrean uzten dituen sektore sozialen – langileria- parte-hartze politikoa bultzatzeko tresna izan baitira.

Ikuspegi urbanistikotik ere eraldaketa nabariak eragin zituzten borroka guzti haiek, herentzian jaso ditugunak. Horiek esker, auzoek oro har onargarria den ekipamendu-maila lortu dutela nabarmentzen du Trenorrek: ikastolak, kiroldegia, kultur etxeak edo auzo-elkarteak.

Gaur egunera begiratuz gero, errealitate sozial orokorra eta bereziki auzoak asko aldatu direla nabarmentzen du Trenorrek. "Egun auzoek dituzten ekipamendu mailak ez du zerikusirik trantsizio garaikoekin alderatuz gero". Baina erronka berriak azaleratu direla argi du. "Etxebizitzarena, gentrifikazioarena, helduen egoera... Hurrengo belaunaldiak arazo hauei erantzuna eman behar dute, eta asmatuko dituzte horri begira antolatzeke eta borrokatzeke beste modu batzuk". ■



# Hiri eredua eta eremu lokaleko praktikak: erronka Sozio-Sindikala

**B**izitzaren babesaren helburu izanik, elkarlotutako hiru erronka nagusi azaltzen zaizkigu hiri ereduen ikuspegitik: hiriaren beraren jasangarritasuna ingurune naturalarekiko, hiri horretan bizi diren bizitza guztien inklusioa eta bizitza horien zaintza.

Oso ohikoa da arduradun politikoak beraien buruei dominak jartzen ikustea, "hiri hezitzaileak", "green" hiriak edo hiri "zaintzaileak" eraiki dituztela saltzeko, guztia argazki eta lema dotorez apaindurik. Horren adibide dira Gasteiz bezalako hiri bat nazioartean "Green Capital" gisa ezaguna izatea, bere burua "hiri hezitzaile" gisa definitzea, eta alkatearen esanetan bere zerbitzu sozialak gainontzekoek jarraitu beharreko eredu izatea.

Egia da Gasteiz "berde" samarra badela, baina ezin daiteke ekologikoki jasangarri bezala definitu erregai fosilen aldeko apustua egiten duenean, hiriko ateetan bertan gasa ustiatuz, edo emisio kutsakorrek gomendatzen diren baina askoz maila altuagoan dituen.

Gasteiz ez da hiri hezitzaile, edo hurren babeslea, kontrara, hiri segregatzailea da; izan ere, familia migratu edo/eta maila sozioekonomiko baxuetakoen seme-alabak zentro publiko azpifinantzia-tuetan pilatzen baitira nagusiki.

Gasteizen, Zerbitzu Sozialak zein adineko pertsonen zaintzak arduragabe pribatizatzen dira, Udalaren eta Foru Aldundiaren arteko eskumen-transferentziak aprobetxatuz horretarako, adineko pertsonentzat diren ehunka plaza publiko ezabatuta - eta noski, baita ho-



**Ruben Egia Martinez**  
Gasteizko Udaleko Langilea  
eta aktibista sozial eta sindikala

**RUBEN EGIA MARTINEZ**, LABen administrazio eta Udal Foru sektoreetako arduraduna Araban.

Hainbat mugimendu sozialetako kide izandakoa: «Berriztu» mugimendu ekologistan, «Araba Borrokan» eta «Eustorma» enpleguaren aldeko Plataformetan eta Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren aldeko Plataforman aritutakoa besteak beste.

riei loturiko lanpostu guztiak ere, zaintza arloko langileen prekarietatean oraindik eta gehiago sakonduz -.

Hiri mailan, ekintza sozio-sindikaletik, oro har oso zaila den zerbait lor dezakegu: teoriatik praktikara igaroz, municipalismoa politikoki era eraginkorrean baldintzatzea, ekintza zehatzen bidez. Hau guztia ikuspegi sozio-sindikal integral batetik, hiriarentzat eta bertan bizi diren pertsonentzat bizitza duina ahalbidetuko duten kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak lortze aldera.

## TEORIATIK PRAKTIKARA EREMU LOKALEAN

**Hirian bizi diren pertsonentzako hezkuntza-eredu inklusiboa**

Beharrezkoa da eremu sozio-sindikaletik Hezkuntza Eredu Publiko eta Burujabe baten alde urratsak eman ditzaten instituzioak presionatzea, gure hirietako errealitate sozialari erantzuteko prestaturia egongo den hezkuntza sistema antolatu ahal izateko tokiko erakundeei eskumen gehiago eman diezazkieten. Herrikoia, hurbila, komunitarioa, doakoa, euskalduna, laikoa, ko-hezitzailea eta bere osotasunean diru publikoz finantzaturia izango den Hezkuntza Sistema.

Ildo beretik, maila lokalean jardutea ezinbestekoa da beharizan horiek sozializatu eta praktika eraldatzaileak garatu ahal izateko, ikasle guztiei beraien auzoan bertan kalitatezko hezkuntza publiko eta doakoa izateko eskubidea bermatzeko. Ideiak sozializatuz eta udalari interpelazio politikoa eginez, aurrerapauso handiak eman daitezke helburu horri begira. Klase aberatsek horrenbestetan familien eskubide gisa aldarrikatzen duten ikastetxea "aukeratzeko askatasuna" da inklusioa oztopatzen duten desoreken sortzaile nagusia. Ordaindu dezakeenarentzat "askatasuna" finean, nahiz eta sarritan ezkerreko hainbat sektorek bere egiten duten, proiektu autogestionatu eta berritzaile bezala moztorturik.

**Zaintza krisiari,  
prekarizazio eta  
feminizazioari esker  
eusten zaio, eta ez  
soilik etxeko eremuan,  
baita zaintza sektore  
profesionalizatueta ere**

**Familia migratu edo/eta  
maila sozioekonomiko  
baxuetakoen seme-  
alabak zentro publiko  
azpifinantziatueta  
pilatzen dira nagusiki**

**Zerbitzu Sozialak zein  
adineko pertsonen  
zaintzak arduragabe  
pribatizatzen dira,  
Udalaren eta Foru  
Aldundiaren arteko  
eskumen-transferentziak  
aprobetxatuz  
horretarako**

Bestalde, ikastetxeetako langileria-  
ren inplikazioari esker jadanik aplikatzen  
ari diren pedagogia berritzaileetan sa-  
kondu beharra dago. Baina hauek hiri  
osoko proiektu hezitzaile gisa hedatu  
behar dira, Heziketa Zentroen arteko  
lehiak hauspotu gabe.

Ezinbestekoa da zuzendu beharreko  
egoerak identifikatu eta honako neurri  
hauek hartzea: segregazioa pairatzen  
duten ikastetxeen baliabideak handi-  
tzea; Auzo-Herri Eskola batera trantsi-  
zioa marraztea eta epe argiak izango  
dituen inklusioa sustatzeko plan sendo  
bat elaboratzea. Horretarako, matriku-  
latzeko udal-bulegoak ezarri beharko  
dira, matrikulazio irizpide inklusiboak  
definituko dituztenak, eta ez klientelis-  
moan edo ikastetxeen arteko lehiari oi-  
narrituak.

Azkenik, tokian-tokiko eragileen par-  
te-hartzea ematea ezinbestekoa izango  
da, hezkuntza-komunitatearekin eta da-  
gokion Udalarekin batera. Horretarako,  
foro benetan parte-hartzaile eta eragin-  
korak bultzatu beharko dira.

**Hiri bizitzarako eredu eko-iraunkorra**  
Behar-beharrezkoa da ekintza sozio-sin-  
dikalean ikuspegi ekosozialista batetik  
lan egitea. Ez gara gai honetan gehie-  
gi luzatuko, Talaiaren beste hainbat ar-  
gitalpenetan jadanik nahikoa sakondu  
baita. Baina, azpimarratzekoa da, udal-  
-politika jasangarriak lortzera bidean,  
hirietan bertan egiten den aktibismoak  
aukera ukigarri, egingarri eta errealeak  
eskaintzen dizkigula. Hamaika adibide  
daude energia berriztagarrien, hurbiltasun  
zirkuituen edo eta gestio energetikoaren  
publikazioaren aldeko apustua  
egin duten hiriena. Hiri ikuspegi integral  
batetik gauzatuak, hedatuz gero, maila  
globaleko aldaketak eragingo lituzkete-  
nak, lokaletik abiatu arren.

**Zaintza hiri bizitzaren sostengatzaile  
gisa aitortzea**

Zaintza-lanak dira lanik eta feminizatu,  
ikusezin eta prekarizatuak. Zaintza  
krisiari, prekarizazio eta feminizazioari





publiko baten alde eta zaintza-sektoreko langileen prekarietatearen eta hauen pribatizazio eta merkantilizazioaren aurka gizartea sentsibilizatzea.

## **EKINTZA SOZIO-SINDIKALA HIRIAN**

Ekintza sozio-sindikala egiterako orduan sinesgarriak izateko, beste begirada batzuk garatu beharko ditugu lehendabizi; gure sakoneko arazoa sistema kapitalista, ekozida, neoliberal-patriarkal eta arrazista denaren kontzientzia hartzea. Begirada kritiko eta feminista garatzea, zerbitzu publikoei begirako estrategia pribatizatzaile eta prekarizatzaileak antzemateko gai izango dena. Gure pentsamoldearekiko kritiko izan, hirian bizi garen pertsona batzuek ditugun pribilegioez – bertan bizi diren beste hainbatetik horiek ez dituztela kontuan hartuta – eta guzti honetan dugun erantzukizunaz jabetzeko balioko diguna.

Ideiak sozializatu eta kaleak mugitzea tokatuko zaigu. Horretarako, gure proposamen propioak elaboratzeaz gain, horiek azaltzean ere esfortzua egin beharko dugu, kalitatezko zerbitzu publikoen ezinbestekotasuna azpimarratuz, zeintzuetan lan egingo dutenek baldintza duin eta ez-prekarioak izango dituzten. Horrez gain, beharrezkoa izango da komunitate sozio-sindikaleko agente ezberdinekin elkarlana burutzea, arlo politikoari egindako interpelazioak eraginkorrak izan daitezen.

Bukatzeko, herri mobilizazio horizontal, ireki, transbertsal, eraginkor eta irmoak beharrezkoak izango dira, maila lokaleko akordio ahalik eta zabalenetan oinarrituak. Horretarako, siglak eta hegemonia estrategia sindikal bertikalak albo batera utzi beharko dira, hiri ekologikoki jasangarri, inklusibo eta zaintzaile bat, hiri justuago, aberatsago, interdependenteago, eta ondorioz, alaiagoa izango denarekin konbentziturik. ■

esker eusten zaio, eta ez soilik etxeko eremuan, baita zaintza sektore profesionalizatuetan ere, bereziki adineko pertsonen esparruan, zeintzuetan jarraian zentratuko garen.

Biztanleriaren sektore horri begirako politika publikoak, dependentzia maila altuko pertsonen daude zuzenduta. Horrenbestez, autonomia handia duten, baina beraien inguru familiar edo hurbiletik zaintzarik jasotzeko aukerarik ez duten – bereziki zaintza afektiboa – pertsona asko hortik kanpo geratzen dira. Adibide gisa: 1. dependentzia graduandaude, hau da, autonomia handia duten, 300 pertsonako itzarote-zerrenda bat izan arren, Gasteizko udala etxebizi-

tza komunitario posibleak husten ari da, dependentzia-maila handitzen doan heinean pertsona horiek egoitza pribatuetara bideratzeko asmoz. Hau da, bizitokiari begirako irtenbideak planteatzen dira, baina ikuspegi psikosozial batetik benetako zaintza bermatzekoak ez.

Hiri bakoitzeko eremu sozio-sindikaletik, eragile sozialekin batera, bizitza eta zaintzak erdigunean jarriko dituen beste eredu bat defendatzea posible da; zerbitzuen erabiltzaileak beren bizitzaren protagonista izatea bilatuko duen eredua, eredu komunitario eta kolaboratibo bat alegia. Alternatiba horren aldarrikapenarekin batera, nahitaezkoa izango da kalitatezko Zaintza Zerbitzu

# Riders en nuestras ciudades: más allá de la explotación laboral

**N**o muchos fenómenos han revelado de forma tan evidente a ojos de los y las ciudadanas la interdependencia entre el consumo, el trabajo y el capital como los llamados *Riders*. Lo que aparentemente emergió como un nuevo problema “técnico” de encaje del trabajador atípico en el marco laboral, ha descubierto el ideal de un modelo de explotación del capitalismo salvaje que lleva años gestándose: la *uberización de la economía*. En ese sentido, el fenómeno no es, en esencia, ni novedoso, ni repentino, ni accidental, y sus objetivos son heterogéneos y multinivel, transitando desde la quiebra del actual modelo de Relaciones Laborales, hasta la construcción de un nuevo modelo de sociedad basado en unos patrones de consumo concretos, la eliminación de la identidad de clase, y la destrucción del Estado de Bienestar.

## DE LA ECONOMÍA COLABORATIVA A LA UBERIZACIÓN DE LA ECONOMÍA: UN NUEVO NOMBRE PARA UN VIEJO PROBLEMA

Como suele ocurrir en los fenómenos globales contemporáneos, y más aún en aquellos que pueden ser objeto de estudio desde distintas disciplinas (económica, sociológica, jurídica...) el término “economía colaborativa” convive junto a otros, tales como *economía digitalizada*, *economía de plataforma*, *gyg-economy*, *sharing-economy*, *peer economy*, o *uberización de la economía* hacen. En efecto, todos ellos hacen referencia a esta “nueva” forma de organización de la producción, pero, aunque hay cierto consenso en la consideración de sus rasgos fundamentales esconden 2 realidades muy distintas: una actividad con un evi-

**ANDREA DE VICENTE ARIAS** es Licenciada en Ciencias del Trabajo por la Universidad de Cádiz y Diplomada en Estudios Avanzados por la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

dente ánimo de lucro que reproduce los mecanismos de compraventa tradicionales (caso de las plataformas de reparto Glovo, Deliveroo, Uber o Cabify); y otra actividad cuyo objetivo es por el contrario, el de desmercantillar un espacio concreto y, en base a una relación entre iguales, a lo sumo rentabilizar bienes o servicios infrautilizados. Este último sería, por ej., el caso de las plataformas que ponen en contacto usuarios para compartir coche (como “Bla Bla Car”), para muchos el origen de la idea de “economía colaborativa” nacida en un contexto de postcrisis de 2008.



**Andrea  
De Vicente**

**EHUko irakaslea**

En ese sentido, Miguel Rodríguez-Piñero Royo realiza una interesante aportación en la definición de los *trabajos 3.0*, al hablar de *Trabajadores Uberizados*, para “aquellos contratados mediante plataformas de servicios de poca cualificación, con condiciones de trabajo malas y retribuciones escasas” (“El trabajo 3.0 y la Legislación Laboral” en *Economía Colaborativa y Derecho Social*, 2016). Aunque, como veremos más adelante, podemos dar por superados los sectores de “poca cualificación”, esta distinción es básica y en definitiva, nos pone en el disparadero de la archimentada perversión del lenguaje empleada por el capital para sus propios fines: un servicio prestado por medio de apps que vinculan a las personas usuarias, a costa de modelos de Relaciones Laborales altamente precarios, basados en la mercantilización del trabajo y con un evidente ánimo de lucro, no es “economía colaborativa”, si no “economía uberizada”.

Pero, como decíamos, el fenómeno no es nuevo. Desde la óptica iuslaboralista, históricamente se ha pretendido obstaculizar el encaje del trabajador *atípico* en el Derecho del Trabajo, a través de las fórmulas subcontratadoras, “convirtiendo” a las trabajadoras formales (dependientes) en trabajadoras de otras empresas o trabajadoras autónomas. Sirva como ilustración una cita rescatada de un texto de Monereo Pérez y Álvarez Montero hace más de 20 años, en el que se hablaba de la generalización de la subcontratación en organización de la producción, “hasta el hipotético supuesto, aunque no irreal, de empresa sin trabajadores -empresa vacía-”<sup>1</sup>. El objetivo no es por tanto otro que la huida del Derecho del Trabajo y la expulsión de su incómodo manto protector, cuanto menos dificultando el derecho de huelga, la negociación colectiva, el acceso a la justicia e instancias laborales y... la protección sindical, porque, de he-

cho, no parece casual que el modelo se haya estrenado en hostelería y transporte: sectores cercanos a la economía informal, tradicionalmente poco sindicalizados, y con una fuerza de trabajo segmentada e incomunicada. Lo novedoso sería por tanto la entrada en escena del componente “digital”; un componente que, si bien embarra los tradicionales problemas jurídicos ligados a los procesos de descentralización productiva y subcontratación laboral, no transforma el problema de fondo: el anhelo capitalista de la empresa sin trabajadores

### ALGUNOS EFECTOS ECONÓMICOS. LA UBERIZACIÓN DE LA ECONOMÍA COMO MODELO DE FUTURO

En la actualidad se estima que hay en torno a 15.300 trabajadoras en plataformas delivery, sector en el que la Inspección de Trabajo ha levantado actas por un valor de más de a 21 millones de euros en concepto de cuotas no pagadas

---

No es casual que el modelo se haya estrenado en hostelería y transporte: sectores tradicionalmente poco sindicalizados

Este modelo les facilita trabajadoras sin derechos y sin conciencia de clase

a la Seguridad Social entre 2018-2020. El saqueo a las arcas públicas es evidente. Gracias al *modelo uber*, algunas fuentes sindicales señalan que los trabajadores de las plataformas digitales de reparto, pierden hasta 92M€ al año y la SS hasta 75M€, pero no son los únicos. Varios medios resaltan que la propia Glovo obtuvo unas pérdidas en el 93% de sus mercados y 199,1 millones durante 2019 -80 millones en 2018-, pero pese a ello logró unos ingresos de 218,5 millones provenientes de inversiones -aproximadamente el doble que en 2018-.

Un artículo escrito por Genoveva López en *El Salto Diario*<sup>2</sup> arroja luz en torno el origen de estas inversiones. Sobre las deficitarias cuentas de resultados de UBER, señalaba que “...parece que solo se mantiene debido a las mil millonarias inyecciones de dinero que recibe por parte de empresas de capital riesgo como Founder Collective y Crunch Fund, bancos como Goldman Sachs, Morgan Stanley o Citigroup, gigantes de la tecnología como Google o Baidu, o grandes inversores como Jeff Bezos —el fundador y director ejecutivo de Amazon—, Troy Carter —de Spotify— o Scott Banister —de Paypal—”. Con estos datos, no resulta descabellado pensar que el interés trasciende lo estrictamente económico.

Así, a través de la pervivencia de los riders, el modelo se expande como una mancha de aceite en las economías de todo el mundo. En la red encontramos experiencias y denuncias del recurso a los falsos autónomos entre corredores de Seguros, arquitectos, periodistas, diseñadores gráficos, abogados o médicos; y en la actualidad según varias fuentes, la cifra de falsos autónomos supera los 200.000 en el Estado Español, y, según la UATAE -Unión de Autónomo-, se incrementa en más de 15.000 personas cada año.

En definitiva, el negocio puede no ser rentable, pero el modelo sí lo es

1- Dimensión laboral de la contratación y subcontratación empresarial, Granada, edit. Comares, 2002: 21

2- El Salto Diario. Abril de 2019, “De quién es la economía colaborativa



para el desarrollo de un capitalismo sin escrúpulos: en lo laboral se obtiene de partida, mano de obra sin trabajadores formales, al transferir los riesgos de las contrataciones directas a unidades más pequeñas y vulnerables, al tiempo que se asegura la apropiación de todas sus ganancias; pero, además, convierte a la clase trabajadora en empresarias y competidoras entre sí. En definitiva, el modelo les facilita trabajadoras sin derechos y sin conciencia de clase.

Por otro lado, en términos de modelo socioeconómico, contribuye al desmantelamiento del sistema de SS y la promoción planes de pensiones privados: el desmantelamiento del Estado de Bienestar y la profundización en el capitalismo salvaje

### **ACTUALIDAD DEL PROBLEMA: EMERGENCIA DE COOPERATIVAS Y OBSERVACIONES A LA LEY RIDER**

La respuesta ciudadana a este modelo se ha articulado fundamentalmente entorno a dos ejes. Los colectivos de trabajadoras y ex trabajadoras de plataformas digitales "Riders por Derechos" o Eragin en Bilbo, junto a otros colectivos y la Inspección laboral, han dado la batalla en dos planos fundamentales: por un lado, por la vía de la denuncia social y formal -en los tribunales-, instando a los poderes públicos a tomar cartas en el asunto; pero también por la vía de la práctica, conformando cooperativas de riders basadas en condiciones laborales dignas. Si bien es cierto que la explotación laboral ha sido el detonante revelador de un modelo que trasciende el ámbito del consumo -el basado en la huida del derecho del trabajo a través de la expansión de los falsos autónomos-, no puede escaparse que la presencia de los riders en nuestras ciudades ha venido a confirmar también un patrón de consumo que lleva la inmediatez por bandera. En este sentido, si bien es cierto que las iniciativas como las de las cooperativas Eraman en Gasteiz, Botxo Riders en

Bilbao y Blokal en Donosti - siguiendo el ejemplo de Mensakas y La Pájara en Barcelona y Madrid respectivamente- parten de la asunción de esos patrones, representan la viabilidad de un servicio al enfrentar sus características más perwersas. Al poner en valor un servicio de lujo (recibir comida caliente en tu casa) y ofrecer una salida ética a las empresas que no quieren participar de ese modelo de explotación laboral, las cooperativistas dimensionan el problema, asumen la transformación de la vida en las ciudades -al menos parcialmente- y ponen el foco donde corresponde: en el modelo de desarrollo propuesto por el gran capital.

La lucha iniciada por el colectivo de Riders por Derechos y Eragin en Euskal Herria - Bilbao-, ha cristalizado asimismo en una propuesta de regulación consis-

---

**La presencia de los riders  
en nuestras ciudades  
confirma un patrón de  
consumo que lleva la  
inmediatez por bandera**

**La uberización de la  
economía representa  
una escenificación  
perfecta del objetivo  
de la empresa: el  
desplazamiento del  
riesgo empresarial hacia  
las personas trabajadoras**

tente básicamente en la modificación del Estatuto de los Trabajadores añadiendo una DA23 que finalmente no ha cubierto las expectativas planteadas. La denominada *Ley Rider* insatisface las expectativas de buena parte de las trabajadoras y organizaciones afines a la laboralidad y genera serias dudas entre los expertos en materia procesal, por varias razones:

**A.** Tiene un contenido material limitado: Como punto de partida, la norma mantiene un ámbito de aplicación muy limitado, ya que afecta únicamente al sector del "reparto o distribución de cualquier producto de consumo o mercancía", no confrontando así la expansión del recurso a los falsos autónomos que afecta a otros sectores.

El artículo además se basa en la incorporación de una presunción de laboralidad que sin embargo no altera el concepto de trabajador del art.1.1 ET. En ese sentido, en términos generales no asume los indicios de laboralidad jurisprudenciales ni explota la oportunidad de incidir en el recurso patológico a la subcontratación laboral; pero en términos específicos, en relación con el sector rider, tampoco ataja uno de los problemas fundamentales que más afecta a las trabajadoras más vulnerables: el problema específico del mercado de subalquiler de cuentas.

**B.** Genera dudas en torno a su eficacia en materia procesal: a pesar del aparente esfuerzo por la transparencia en la gestión y contenido de los algoritmos, no se establece ningún registro público ni mecanismo de control de los mismos, lo que combinado con los requisitos de la nueva presunción legal ( organización, dirección y control de forma directa, indirecta o implícita, mediante la gestión algorítmica) empuja a las trabajadoras a un esfuerzo probato-



rio mayor que los establecidos en el art. 1 ET, por lo que se presume poco relevante a efectos prácticos.

C. Vacío en materia transitoria y medidas adicionales: Por último, no añade recursos en materia de protección de empleo ante la probable reestructuración empresarial que llevarán a cabo estas empresas, ni se referencian medidas garantistas para las trabajadoras ante los abusos acontecidos.

## REACCIONES A LA LEY RIDER Y CONCLUSIONES

Como era de esperar, las empresas han captado bien este “cierre en falso” y han comenzado a reaccionar a la defensiva. En la actualidad, según han explicado a varios medios, las plataformas digitales están planificando la forma de pasar el “examen de laboralidad” y poder seguir empleando autónomos, a través de la supresión de algunas de las notas características de la relación laboral a la luz de la nueva norma -haciendo desaparecer las horas asignadas o la penalización por rechazar pedidos, por ej-; es el caso de Deliveroo, quien al parecer estaría instaurando un sistema de conexión libre que elimina las reservas de horario o las exigencias de ubicación concreta o la información estadística, entre otros.

Otras de las alternativas planteadas giran en torno a herramientas clásicas de subcontratación. Para continuar ofreciendo sus servicios, las empresas están valorando la oportunidad de recurrir a cooperativas o empresas de distribución con flotas asalariadas propias. Según fuentes empresariales recogidas en varios medios, la efectividad de la organización sindical de las cooperativas y su poder reivindicativo están siendo percibidos como elementos desalentadores para recurrir a cooperativas, por lo que la “solución” pasaría por el recurso al modelo clásico de externalización a través de la ejecución de una maraña de contratos mercantiles con sujetos de muy diferentes características conviviendo en espacio y tiempo.

Los resultados descritos, legitiman las férreas críticas realizadas desde los colectivos en lucha, en torno a las excesivas concesiones de la norma a la patronal, pero también representan la oportunidad de mirar la luna y no el dedo: una regulación que ataje de forma contundente la huida del Derecho del trabajo.

A grandes rasgos, la uberización de la economía representa una escenificación casi perfecta del objetivo de la empresa: el desplazamiento del riesgo y ventura

empresarial hacia las personas trabajadoras o prestadoras del servicio, el incremento de sus ingresos en base a la desresponsabilización de las obligaciones laborales y la mercantilización del trabajo. En este sentido, para el Derecho del Trabajo las consecuencias son dramáticas. Además de quebrar su principio básico tutelar de rechazo a la consideración del trabajo como un a mercancía, reproduce una ruptura del principio del Contrato de Trabajo, por la que se asume la ajenidad de los frutos a cambio del riesgo y ventura del negocio. Como colofón, la asunción de este modelo supone el hundimiento de la función equilibradora para la que nació el DT: el rechazo de la diferencia de poder económico entre las partes — y por ende, de negociación-, lo que cuestiona la propia existencia de clases, llevándonos de regreso al S.XIX y debilitando (cuanto menos) del Estado Social de Derecho.

Así pues, todo el esfuerzo dedicado a mantener en el imaginario colectivo la identidad de clase, por delante de cualquier otra identidad pretendida desde el capital -consumidoras o emprendedoras, por ej.- es poca; no perder de vista que nuestras ciudades continúan siendo levantadas por las mismas manos que las construyeron. ■



# «Lortu beharko genuke ‘klik’ hori langileen soldata eta baldintza duinak bermatzen dituzten enpresen bidez egitea»

Rider gisa Glovon lan egin duzu. Azken aldi asko hitz egiten da horrelako enpleguen inguruan, plataforma-ekonomia deiturikoez, prekaritateari loturiko lan forma berriez. Baina, lehen pertsonan hitz eginez, nolakoa da Rider gisa lan egitea?

Gaiaren gainean ikuspegi ezberdinak egon daitezke, nik neurea emango dizut, baina baliteke beste edozein kideren bertsioarekin bat ez egitea.

Glovon nabil 2018an Gasteizen hasi zenetik. Enpresa honetan lan egiteko, bete beharreko ezinbesteko lehen baldintza autonomo egitea da, bestela ez zaituztelako kontratatzen.

Behin kontratua lortuta, zuk zeuk jarri behar duzu zure garraio-ibilgailua, dela motorra, dela bizikleta, dela autoa. Beraiei berdin zaie nola egiten duzun, garraioa zuk jartzen duzun bitartean. Enpresak eskaintzen dizkizun elementu bakarrak motxila bat, establezimenduetan ordaintzeko txartel bat, mugikorrerako euskarri bat eta bateria bat dira. Hori da Glovok ematen dizuna, beraiei erostera behartzen zaituztena.

Bestalde, Glovon lan egiteko ezinbesteko bigarren baldintza “diamantezko” orduetan lan egitea da, hau da, eskari altuko orduetan – ostiraletik igandera, lehen 20:00etatik 23:00tara, orain pandemiarekin 19:00etatik 22:00etara -. Horrek esan nahi du, nola edo hala, asteburuetan lan egitera behartzen zaituztela, beraien baldintzak onartzera behartua baitzaude astean zehar ere lan-orduak lortu nahi badituzu, orduen “ehizan” aritu gabe. Horregatik, lanean duzun askatasunaz edo ordutegi malguaz esaten duten guzti hori komatxo artean hartu behar da.



**CRISTINA GONZALEZ,**  
Gasteizko Eraman Koop rider  
kooperatibako kidea eta  
Glovoko langile ohia.

**Eta, nola funtzionatzen dute mota honetako enpresek?**

Lan-orduen banaketa, Glovok “bikaintasun-sistema” deitzen duenaren bidez egiten da, *riderr*en erreputazioa neurtzeko sistema bat dena, zeinak, duzun “erreputazioaren” arabera banatzen dituen lan-orduak. Sistema hori 1etik 100era doan puntuazio bat da, hainbat ataletan banaturik dagoena. Puntuen %15 bat bezeroek jartzen dizuten notaren arabera da. Beste %5 bat ostalaritza lokalek jartzen dizuten balo-



razioa. %35a "eskari altuko" orduetan egiten dituzun banaketa kopuruari loturik dago. Gainontzekoa plataformaren beraren eskuetan dago, Glovok ezartzen duen "efizientiaren" eta duzun antzinatasunaren menpe. Atal horietan duzun puntuazioaren arabera, 1etik 100era bitarteko nota bat lortzen duzu. Zenbat eta puntu gehiago izan, orduan eta lan-ordu gehiago izango dituzu, eta alderantziz.

**Enpresa hauek errelato zehatz bat eraikitzen dute, zeinaren arabera, zu zara zeure buruaren nagusia, zeuk ezarri dezakezu zure ordutegi propioa... errealitatea ez da preseski hori.**

Ezta inolaz ere. Grazia egiten dit nola behin eta berriz eslogan berdinekin ateratzen diren, baina errealitatea ez da ez zarela zeure buruaren nagusia, baizik eta, nagusi izan beharrean, beraien esklabo izatera igarotzen zarela. Kate osoko azken katebegia zara. Glovok botere eta kontrol osoa du. Non zauden (ubikazioa uneoro aktibatua izan behar baituzu eskariak lortzeko, eta beraz, geolokalizatua zauden), zure eskariak, zure lan-orduak... guztia kontrolatzen du.

*Gloverrak* ez du ia ezer erabakitzeke gaitasunik. Hori eskaeren berresleipenetan irudikatzen da. Enpresak dio zuk edozein eskariri uko egiteko aukera duzula, eta eskari hori beste *rider* bati esleitzen diotela beraiek. Baina errealitatea da *gloverrak* egunean bi berresleipen baino ezin dituela egin. Eskari gehiagori uko eginez gero, nota jaisten hasten zaizu, eta ondorioz, lan-orduak galtzen hasten zara.

Eskariak ere manipulatuak daude. Eskari bat eramateko prest egon daiteke, baina ez zaie banatzaileei esleitzen, lokaletik urrun daudelako. Norbait lokaleraren abisua jasotzen du. Eskariak ordu erdi eraman dezake prest, eta zuk ordu erdi eman hirian bueltaka, baina ez zitzaizun eskaera horren abisua iristen. Zergatik gertatzen da hori? Urruti zeun-

delako. Eta urrun zeundenez, garestiago ateratzen zaio enpresari. Abisua soilik hurbil zaudenean aktibatzean, dirua aurrezten dute. Dena manipulatzeko dute.

Horrez gain, gero eta gutxiago ordaintzen digute. Hasieran, eskariko batez beste 5-6 euro irabazten genuen. Denbora igaro ahala, batz besteko hori jaisten joan da, 5etik 4 ra, 4 tik 3ra, eta orain 2-3 euro artean ateratzen dugu eskariko. Lotsagarria da.

Denboran ere lapurtzen digute, lokalean itxaroten egoten garen lehen 5 minutuak ez dizkigute eta kontuan hartzen. Bezeroek ematen dizkiguten eskupekoen zati bat ere eramaten dute, orain aplikazioaren beraren bidez kudeatzen baitira. Benetan, gauza horiek lotsa ematen didate.

**Errelato hori, enpresa hauetan lan egiteko autonomoetan alta emanda egotea beharrezkoa izateari lotua dago.**

Gu autonomoak gara enpresari ez zaiolako errentagarri egiten milaka soldatapeko langile izatea. Autonomo izatean, berdin zaie 10 edo 1000 banatzaile izatea kaleetan, ez baitituzte ordu horiek ordaindu behar. Horrela, Glovoko langileen burbuila bat eratu dute. Lan-orduka beharrean banaketa bakoitzeko ordaintzen digutenez, beraiei berdin zaie aplikazioan ordua ireki eta soilik eskari bat egotea, kalean 10 banatzaile egonda ere – nahiz eta horrek esan nahi duen horietatik 9 ezer irabazi gabe lanean ari direla.

Teorian, autonomoak eskumena du bere lanari nahi duen prezioa ezartzeko, baina guk ez dugu horretarako inongo aukerarik. Prezioa enpresak ezartzen du. Eta bonuen balioa nahi duten erara igo eta jaisten dute. Gasteizen eskariko oinarrizko tarifa 2.5 eurokoa zen, eta horri ondoren kilometrajea eta banaketa denbora gehitzen zitzaizkion. Oinarrizko tarifa horretatik, bonu aldakorretara igarotzen ginen, eskari bolumenaren arabera igo eta jaisten zirenak. Printzipioz, eskari kopuru altua zegoenean bonu horiek

« Glovon lan egiteko bete beharreko ezinbesteko lehen baldintza autonomo egitea da

Gu autonomoak gara enpresari ez zaiolako errentagarri egiten milaka soldatapeko langile izatea

Gasteiz hiri jasangarriago bat izatea nahi dugu, autoak bizikletengatik ordezkatzuz »



ere altu egongo zirela esaten zen, eta trukean, oinarritzko tarifa euro batera jaitsiko zutela. Bonu aldakor horietatik, banu aldakor dinamikoetara pasa gara orain, egun bakoitzean tarifa ezberdin bat dugularik.

Egoera honen aurrean antolatu eta greba eta geldialdiak deitu genituen. Enpresak zioen aldaketa hauen ondorioz diru gehiago irabaziko genuela banatzaileok. Ez da horrela izan, gezurra da. Lan bikoitza egiten dugu eta gutxiago irabazi.

### **Egoera horretan ez da erraza zuen arazo laboralei erantzuteko antolatzeari. Baina egin duzue. Zeintzuk izan dira aurkitu dituzuen zailtasun nagusiak?**

Egia da langileon artean antolatzen saiatu ginela, egoerari nolabait erantzuteko. "Zuek bonuak bajatuz gero, guk zuentzat garrantzitsuenak diren ordue-tan, eskari altukoetan, lan egiteari utziko diogu", genioen. Baina egia esan, enpresak izugarritzko boterea du.

Guri geratzen zaigun aukera bakarra greba eta geldialdiak egitea da, eta langile guztiok ulertzea gure lanak ordaintzen digutena baino gehiago balio duela. Ezin dugula onartu horrela trata

gaitzaten. Langileok hori barneratu arte jai dugu, oso zaila izango da egoera aldatzea.

### **Zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?**

Helburu nagusiak soldata eta lan baldintzak hobetzea lirateke. Egunditugunekin oso zaila da lan hau enplegu bakar edo printzipal gisa izatea, guztiz errega.

Aldarrikapen konkretuagoetan zentratuz, enpresa hauek eskariak manipulatzeari utz diezaiotela eskatzen dugu, egiten ditugun kilometroak eta denbora egiaztatzearekin batera. Azken finean, dagokiguna ordain diezagutela. Eta algoritmo sekretu hori agerian utz diezaitela.

### **lazko maiatzean Eraman kooperatiba jarri zenuten martxan, bizikleta bidezko garraio zerbitzu integrala eskainiz. Zer da Eraman eta nola sortu zen?**

Eraman pandemia garaian jaio eta konfinamenduekin batera hedatu zen. Glovon edo beste banaketa-enpresetan ibilitako eta bizikleta gustuko duten kide ezberdinek sortu zuten. Kooperatibatik Gasteiz hiri jasangarriago bat izatea nahi dugu, autoak bizikletengatik ordezkatzu.

Horrez gain, banatzaileek jendartean duten estigma ezabatzea nahi dugu, miseria bat ordaintzen dioten langile gaitzaren estigma.

Helburua beste irudi bat ematea da, Eramaneko uniformearekin txukun-txukun doan *riderrarena*, karbonozko bizikleta dotoreekin, lan baldintza duinekin, ongi ordaintzen diotena eta pozik dagoena. Jendartean inpaktu hori sortzea bilatzen dugu. Komertzio lokalaren aldeko apustua ere egiten dugu. Eta hori, lokala – hemengo, Gasteizkoa – eta ekologikoki jasangarria den alternatiba baten bidez. Gauzak beste era batera egin nahi ditugu.


### **Alternatiba laborala izateaz gain, beste hiri eredu baten aldeko apustua ere bada Eraman, komertzio lokalekin elkarlanean baitzaudete, orain arte etsai gisa irudikatzen ziren bi mundu (komertzio lokal tradizionala eta plataforma ekonomia berriak) batuz.**

Funtsean hori da asmoa, ekonomia berri hauei alde positiboa ateratzea, komertzio txikien alde egitea. Guk ezin dugu jendartearen uberizazioa edo "klik" baten bidez guztia nahi izatea ekidin. Baina bai lortu beharko genuke zu "klik" hori egitera bazoaz, zerbait erosi eta ekar diezazuten, hori langileen soldata eta baldintza duinak bermatzen dituzten enpresen bidez egitea.

Gaur egun fruta-denda, lokal eta negozio ezberdinekin akordioak ditugu, edo ez zaielako Glovo bezalako enpresekin aritzea interesatzen, horren oinarrian dagoen banatzaileen prekaritateagatik, edo negozioa hedatu nahi dutelako, eta plataforma handietara jo beharrean nahiago dutelako kooperatiba txikien alde egin.

Konfinamenduan zehar komertzio askok ezin izan zuten beraien lana ohi bezala egin, eta guk laguntza bat eskaini dugu, ihesbide bat, irekita jarrai zezaten, konfiantzazko zerbitzu jasangarria eskainiz. ■






La ciudad tradicional ha muerto, asesinada por el desarrollo capitalista desenfrenado, víctima de su necesidad insaciable de disponer de capital sobreacumulado ávido de inversión en un crecimiento urbano raudo e ilimitado sin importarle cuáles sean las posibles consecuencias sociales, medioambientales o políticas.

Nuestra tarea política, sugería Lefebvre, consiste en imaginar y reconstruir un tipo totalmente diferente de ciudad, alejado del repugnante caos engendrado por el frenético capital urbanizador globalizado. Pero eso no puede suceder sin la creación de un vigoroso movimiento anticapitalista que tenga como objetivo central la transformación de la vida urbana cotidiana.

*Texto extraído del prefacio del libro  
'Ciudades Rebeldes, del derecho a la  
ciudad a la revolución urbana'  
de David Harvey*



ARGAZKIA: XABIER, CC BY-SA 4.0, WIKIMEDIA COMMONS BIDEZ